



II DIRU-LAGUNTZA LERROA: IKASLEEN GURASO ELKARTEAK (IGE)

LÍNEA DE SUBVENCIÓN II: ASOCIACIONES DE MADRES Y PADRES DE ALUMNAS Y ALUMNOS (AMPA)

1.- Diru-laguntzaren xedea

Lerro honen xedea da diru-laguntzak ematea, hain zuzen ere, Erreterian kokaturiko Ikasleen Guraso Elkarteek (IGE) antolaturiko hezkuntza alorreko jarduerak programak kofinantatzeko helburuarekin. Horrez gain, horien helburuek bat etorri beharko dute Udalaren Hezkuntza azpisailak dituenekin.

2.- Diru-laguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren diru-laguntzen gehienezko kopurua

Hezkuntza alorreko jarduerak kofinantatzeko diru-laguntzen zenbatekoa 2018ko aurrekontuko ondorengo partidaren kontura izango da; betiere, partida horretako zenbateko osoa asetzeko partida nahikoa esleitzen bada:

– 1.0630.471.02.326.20: diru-laguntzak: Ikastetxeak, IGE, hezkuntza entitateak, ezohikoak (A 112-2018), 2018ko aurrekontuari dagokiona.

Diruz lagunduko den leerro honetarako dagoen aurrekontua 15.000,00 €koa da.

Diru-laguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean, ezta aldi berean beste diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin.

3.- Pertsona onuradunak, diru-laguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeke era

Orohar, diru-laguntzetarako aukera izan dezakete hezkuntza intereseko jarduerak gauzatzen dituzten Erreterian kokaturiko Ikasleen Guraso Elkarteek (IGE).

1.- Objeto de la subvención

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para cofinanciar e impulsar programas de actividades educativas en Erreteria, organizadas y llevadas a cabo por Asociaciones de Madres y Padres de Alumnas y Alumnos (AMPA) radicadas en el municipio, y cuyos fines sean acordes con los objetivos de la subárea de Educación del Ayuntamiento.

2.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones

El importe de las subvenciones para cofinanciar programas de actividades educativas irá con cargo a la siguiente partida del presupuesto del año 2018, de forma que el importe global de las mismas queda condicionado a que se consigne partida presupuestaria suficiente:

– 1.0630.471.02.326.20: Subvenciones: Centros Escolares, AMPA, entidades, extraordinarias (A 112-2018) del ejercicio 2018.

La disponibilidad presupuestaria para esta línea de subvención asciende a 15.000,00 €.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

3.- Personas beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos

Con carácter general podrán optar a las subvenciones las Asociaciones de Madres y Padres de Alumnas y Alumnos (AMPA) radicadas en Erreteria que realicen actividades de interés educativo.



Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek oinarri orokorren laugarren oinarrian adierazitako dokumentazioaz gain ondorengo ere aurkeztu behar dute eskaerarekin batera:

a) Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistro Orokorrean izena emana dutela egiaztatzen duen ziurtagiria. Urte berean beste diru-laguntza eskaerarik egin bada ez da beharrezkoa izango ziurtagiri hori aurkeztea.

b) Eskaera egin duen elkartearen estatutuak. Baldin eta lehendik aurkeztu ez badira edo aldaketaren bat egin baldin bada.

c) Eskaria egiten duen elkarteak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiazttagiria.

4.- Eskabideak aurkezteko epea

Urteko jarduera programetarako diru-laguntzen eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta amaituko da hogeit hamar egun igaro ondoren.

5.- Eskabideak baloratzeko irizpideak

Eskabideak baloratzeko irizpideak ondorengoak izango dira:

Documentación a presentar con la solicitud:

Quienes hagan la solicitud deberán presentar con la solicitud, además de la documentación establecida en la base cuarta de las bases generales, la siguiente documentación:

a) Certificación actualizada de la inscripción en el Registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco. Dicha certificación no será necesaria si durante el mismo año ya fue aportada para otra solicitud de subvención.

b) Estatutos de la asociación solicitante. Si no han sido presentados con anterioridad o si han sufrido alguna modificación

c) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la asociación solicitante.

4.- Plazo de presentación de solicitudes

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención para programas de actividades anuales habituales estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará en veinte días hábiles.

5.- Criterios de valoración de las solicitudes

Los criterios de valoración de las solicitudes serán los siguientes:

BALORATZEKO IRIZPIDEAK			CRITERIOS DE VALORACIÓN	
ELKARTE ESKATZAILEARI DAGOZKIONAK	Gehienez 19 PUNTU		EN CUANTO A LA ASOCIACIÓN SOLICITANTE	Máximo 19 PUNTOS
Elkartearen ibilbidea, errotzea, iraunkortasuna eta egonkortasuna	8 puntu bitarte		Trayectoria, arraigo, continuidad y estabilidad de la asociación	Hasta 8 puntos
Jarduera kolektiboetan eta/edo udal jardueretan parte hartzea	5 puntu bitarte		Participación en actividades colectivas y/o municipales	Hasta 5 puntos



Finantza baliabideak	6 puntu bitarte	Recursos financieros	Hasta 6 puntos
PROGRAMA / JARDUERAREN INGURUKOAK	Gehienez 81 PUNTU	EN CUANTO AL PROGRAMA / ACTIVIDAD	Máximo 81 PUNTOS
Programaren ibilbidea, izaera eta aldizkakotasuna	10 puntu bitarte	Trayectoria, naturaleza y periodicidad del programa	Hasta 10 puntos
Programaren kalitatea: hezkuntza, genero eta kulturantzatasun ikuspegia	21 puntu bitarte	Calidad del programa: perspectiva educativa, de género e intercultural	Hasta 21 puntos
Programa / jarduera euskaraz garatzea	8 puntu bitarte	Desarrollo del programa / actividad en euskera	Hasta 8 puntos
Jarduera berriak, berritzaileak eta antzekorik ez izatea	5 puntu bitarte	Actividades nuevas, novedosas e inexistencia de actividades similares	Hasta 5 puntos
Herritarren esku-hartzea sustatzea, beste entitate eta eragile batzuekin lankidetzat	12 puntu bitarte	Promoción de la participación ciudadana, colaboración con otras entidades y agentes	Hasta 12 puntos
Hartzaileak	15 puntu bitarte	Destinatarias y destinatarios	Hasta 15 puntos
Programaren proiektzioa eta difusioa	10 puntu bitarte	Proyección y difusión del programa	Hasta 10 puntos

6.- Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntza diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

% 60 diru-laguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin.

% 40 egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

6.- Abono de la subvención

Los importes de subvención serán abonados de la siguiente forma:

60 % tras la resolución de asignación de subvenciones, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.

40 % tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.



7.- Diru-laguntzaren justifikazioa

Diru-laguntzaren bigarren ordainketa diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hori aurkezteko epe muga 2019ko urtarrilaren 31 izango da.

Zehazki, aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da:

- a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.
- b) Diru-sarrera eta gastuen balantze ekonomikoa.
- c) Eginiko gastuen egiaztagiria (fakturak) eta horien zerrenda.
- d) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.
- e) Elkarrearen diruzainak izenpetutako ziurtagiria, non jasotzen diren diruz lagundutako edo programatutako jarduerak finantzatzeko laguntza guztiak; bai entitate publikoek zein pribatuek egindakoak, zein publikoak orokorrean.

Diru-laguntzaren eskabide ereduarekin batera doan dokumentazioa bete beharko da.

Ohar garrantzitsua: deialdi honek oinarri ditu aurtengo ekitaldian zehar azpisaileko programei diru-laguntzak emateko oinarri orokorrak. Hemen zehazten ez den guztian, haietara jo beharko da.

7.- Justificación de la subvención

El segundo pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 31 de enero de 2019.

En concreto, la documentación a presentar será la siguiente:

- a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.
- b) Balance económico de ingresos y gastos.
- c) Justificantes del gasto realizado (facturas) y relación de los mismos.
- d) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.
- e) Certificado suscrito por el Tesorero o Tesorera de la asociación donde se haga constar una relación de todos los ingresos obtenidos para la financiación de la actividad o programa subvencionado, tanto de entidades públicas como privadas, como del público en general.

Deberá cumplimentarse la documentación que se adjunta al modelo de solicitud de subvención.

Nota importante: esta convocatoria deviene de las bases generales para la concesión de subvenciones a programas del área o de la subárea durante el presente año. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquéllas.